

Aitor Kortabarria Lezeta-k bere tesia irakurri du

2014/12/04

Azaroaren 28an, goizeko 12:00tan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Aitor Kortabarria Lezeta Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen euskaraz Polo Garaiko Auditorioan. Tesiaren izenburua Mekanizatzean sorturiko hondar tentsioen eraginaren azterketa, elementu finituen modeloen bidez eta tesi zuzendariak: Pedro José Arrazola. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Patxi Xabier Aristimuño Osoro (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Unai Segurajauregui Alustiza (IKERLAN) Dk. Jn.
- Mahaikidea: María Aranzazu Linaza Aberasturi (Industria de Turbo Propulsores S.A.) Dk. And.
- Mahaikidea: Koldo Mirena Ostolaza Zamora (Industria de Turbo Propulsores S.A.) Dk. Jn.
- Idazkaria: Jon Ander Esnaola Ramos (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Inconel 718 hegazkinen motorretako osagai kritikoak fabrikatzeko erabiltzen den materiala da. Osagai horien hutsegite batek galera ekonomiko eta pertsonal handiak eragin ditzakeenez kalitate eskakizun bereziak bete behar dituzte. Tesi honetan zehar Inconel 718 torneatzean sorturiko hondar tentsioak aztertu dira, eta elementu finituen teknikan oinarrituriko modelo berri bat garatu da.

